



XII Reunión Científica Sociedad Española de Astronomía

Bilbao, 18-22 de julio de 2016

15.07.2016

Astelehenean hasiko da Espainiako Astronomia Elkartearen XII. Bilera Zientifikoa Bilbon

350 profesioaletik gora bilduko dira uztailaren 18tik 22ra Bilbon ospatuko den astronomiari buruzko Espainiako kongresurik handienean

Bost egunez, Bilbo maila goreneko astronomia foroa bilakatuko da. Espainiako Astronomia Elkarteak (SEA, jatorrizkoan) bi urtean behin egiten duen Bilera Zientifikoaren XII. Edizioa Euskal Herriko Unibertsitateko Bizkaia Aretoa eraikinean (Abandoibarra 3, Bilbo) ospatuko da uztailaren 18a eta 22a bitartean. Astronomiaren arloko 350 profesioaletik gora bilduko ditu: espainiarrak eta atzerritik etorritako gonbidatuak ere. Parte hartzaile asko elkarteko junior bazkideak dira, hau da, doktorego tesia oraindik bukatu ez duten ikertzaileak.

Inaugurazioan izango dira: Iñaki Goirizelaia, UPV/EHUko errektorea; Juan María Aburto, Bilboko alkatea; Cristina Uriarte, Hezkuntza, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua, Javier Gorga, Espainiako Astronomia Elkarteko presidentea, eta Agustín Sánchez Lavega, UPV/EHUko Planeta Zientzien taldeko zuzendaria eta bilera zientifikoaren batzorde antolatzailearen presidentea.

Astean zehar, egungo astronomiak aztertzen dituen gai ugarietan egon diren azken zientzia eta teknologia lorpenak eta erronkak aztertuko dira: kosmologia eta grabitazio uhinetatik Eguzki Sistemaren esplorazioraino, espazio eta lurreko behatokiaren garapenetik igaroz ere, non Espainiako komunitate astronomikoak presentzia garrantzitsua duen.

Espainia ESO, JWSTn eta SKAn, gai gailenak

SEAREN XII. Bilera Zientifikoaren egitarauak saio berezi bat aurreikusia dauka, non **Espainia ESO sartu zenetik hamar urte bete direla** ospatuko den. Europako Behatoki Australak 15 kide europar hartzen ditu egun eta zenbait behatoki ditu Txilen, horien artean bere proiektu nagusia den E-ELT Europako Teleskopio Arras Handia: 39 metrokoa, eraikuntza fasean dago egun eta bere abiaraztea 2024. urterako aurreikusita dago. ESOKo zuzendari nagusi Tim de Zeeuwek saioan parte hartuko du.

Aipatzekoa den beste saio batek **James Webb Space Telescope (JWST)** delakoa aztertuko du, Hubblearen oinorde den eta 2018n jaurtiko den espazio teleskopioa. Europako Espazio Agentziako (ESA, ingelesez) zientzialari eta proiektu horren buru Pierre Ferruitek saioan parte hartuko du. Inoiz eraiki den irrati-teleskopiorik handiena den **Square Kilometre Array (SKA)** delakoak, Australian eta Hegoafrikan instalatuko dena, toki garrantzitsua izango du ere. Philip Diamond bere zuzendaria gure artean egongo da. Hainbat espainiar daude bi proiektuetan.

Juno, Gaia, Rosetta...

Nabarmentzeko beste hitzaldi bat da **Jupiterreko orbitan sartu berri den Juno NASaren misioari buruzko** hori. NASaren Jet Propulsion Laboratory laborategiko kide, Lurretik Junora bidaltzen diren laguntza jakinarazpenen koordinatzaile eta JunoCam instrumentuaren taldeko kide den Glenn Orton izango da hizlaria. ESaren **Gaia misioaren** azken berritasunak aurkeztuko dira ere; bere lehen emaitza ofizialak irailean argitaratuko dira. Beste hitzaldi batzuetan jorratuko diren gaiak dira, esaterako, 2026n abiaraziko den **Europako Eguzki Teleskopioa** (EST, ingelesez) edo **Rosettaren** behaketak.

Brasil, herrialde gonbidatua

Brasilgo Astronomia Elkartea izango da edizio honetako gonbidatua eta, ondorioz, bi herrialdeen arteko zientzia lankidetzara oparotzen eta historikoa jorratuko duen saio bat egongo da, non arreta berezia jarriko zaien egungo ikerketa proiektu komunei. Brasilgo Astronomia Elkartearen presidentea Marcos Diaz eta Río Grandeko (Porto Alegre, Brasil) Unibertsitate Federaleko Thaisa Storchi Bergmann astrofisikaria (nazioartean ospetsuenetakoa, emakumezko zientzialari apartekoei ematen zaien L'Oreal-UNESCO saria jaso du, besteak beste) izango dira Brasilgo ordezkariak.

Adin guztientzako jarduerak

Saio zientifikoen gain, Espainiako Astronomia Elkartearen XII. Bilera Zientifikoak adin guztientzako hiru jarduerara antolatuta ditu.

Hasteko, uztailaren 19an, asteartean, **behaketa astronomikoa** antolatuta da **Guggenheimeko Zabalgunean**, 22:00etatik aurrera. Bizkaiko Astronomia Elkartearen laguntza izango dugu.

Uztailaren 20an, asteazkenean, Universitat de les Illes Balears-eko irakasle eta LIGO taldeko kide Alicia Sintese **grabitazio uhinen inguruko hitzaldia** eskainiko du. Hitzaldia adin guztientzako entzuleentzat da. Bizkaia Aretoan egingo da. Sarrera askea eta doakoa izango da, leku guztiak bete arte.

Azkenik, uztailaren 22an, ostiralean Espainiako Astronomia Elkartearen presidentea Javier Gorgasek **Cervantes izarraren eta bere exoplaneten inguruko hitzaldia** eskainiko du. Bidebarrietako Liburutegian (Bidebarrieta kl., 4) izango da eta, oraingoan ere, sarrera askea eta doakoa izango da leku guztiak bete arte.

Informazio gehiago eta egitarau osoa:

www.sea-astronomia.es/SEA2016

Hedabideentzako oharrak:

Bilera Zientifikoaren bost egunetan Espainiako Astronomia Elkarteak eguneko prentsa-ohar bana argitaratuko du, jardunaldi horretako informazio garrantzitsuenekin.

Bileraren jardueretako batera etortzeko, informazio osagarria eskatzeko edo parte-hartzailearen batekin* elkarrizketa adosteko, ondokoa da harremanetarako informazioa:

Anna Boluda

contacto@sea-astronomia.es

Tel. 619774516

*Atzerriko gonbidatu gehienek ez dute gazteleraz hitz egiten eta ez dugu aldibereko itzulpen zerbitzurik, baina jorratuko diren gai guztiak estaltzen dituzten aditu espainiarrak ditugu. Zenbaitetan, eta SEAREN XII. Bilera Zientifikoari buruzko adierazpen orokorrenzat bereziki, euskarazko adierazpenak eskainiko dizkiegu aipatuak nahi dituzten hedabideei.